

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Iker 13 liburuaren aurkezpena

Bilbo, egoitza, 2003-IV-24

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-andereak, eguerdi on.

Eskerrak zuei ikusten baitut ari zaretela hemen bilduak liburu honen aurkezpenerako. Hemen, nire ondoan direnak, prentsatsen dut jadanik anitzek ezagutzen dituztela, nire eskuinean Juan Luis Goikoetxea, tesiaren egilea eta egun liburuaren aurkezpen honetan berea emanen duela; Gotzon Lobera jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskararen Sustatze Zuzendaria; nire ezkerrean, Nora Dañobeitia andrea, Bilbao Bizkaia Kutxako Fundazioaren Kanpo Harremanetarako kidea eta Iñaki Gaminde, Mendebalde Alkarteko kidea eta tesiaren epaimahaikoaren idazkaria.

Ez dago dudarik tesi honek bere garrantzia daukala, oroi naiz, zeren eta tesi horretan epaimahaiburu bainintzen, behar den bezala irakurri duela tesia eta ikusi nuela ere zer ziren hor gauza berriak eta bereziki, hor ikusten zela, holako, nola erran nezake, ez borroka bat, baina behar zuela kontuan hartu, dudarik gabe, euskalkiak gure belaunaldian eta oroi naiz epaimahaian erranik, bai guk ere Iparraldean bereziki, ikusten genuela eta Seaskak ikusi zuela hori argi eta garbi, ez zela urrundu behar haurra bere ingurumenetik, erran nahi baita hor erraiten zela dakitenik edo zakitenetik ez zakitenerat eramatea. Baina badela hor lotura bat, eskola eta etxearen arteko lotura bat eta lotura hori behar zela zaindu, baina eraman behar zela gero haurra, emeki-emeki, euskalkitik, euskara batura eta hori zela Iparraldean genuen geraldian eta hain zuzen, galde egin baitit Juan Luis Goikoe txearak aitzin solasa egitea, hori erraiten dut aitzin solasean, baina azpimarratzen dut ere, Euskaltzaindiak erraiten duena, agerralditik ikusi du euskara batu baten beharra, hori hizkuntza amankomuna dela, euskaldunon gutzientzat, izan ditzen mendebaldekoak edo ekialdekoak, izan ditzen iparraldekoak edo hegoaldekoak, baina denbora berean erraiten zuela eta ez zuela sekula baztertu euskalkiak, erraiten zuela euskalkiak eta tokian tokiko hiz-

kerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz. Nik uste dut argi eta garbi direla gauzak, ori naiz ere eman geniola *apto cum laude* Juan Luis Goikoetxeari eta ez naiz ni gehiegi luzatuko eta ematen diot hitza tesiaren egileari eta liburua-
ren egileari.